

## **2022ko URRIAREN 17an GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAK egindako BILKURAREN AKTA**

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteiz) eta 2022ko urriaren 17ko 12:30ak direnean, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da, honako pertsona hauen parte-hartzearekin:

- Jose Antonio Rodriguez Ranz jauna, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (hemendik aurrera, eLankidetz) eta haren Kontseilu Errektoreko presidente Beatriz Artolazabal Albéniz andrea ordezkatzuz. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Asier Aranbarri Urzelai jauna, Gizarte Berrikuntzako zuzendaria, Lehendakaritzaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Fernando Iturriaga jauna, Programa eta Azterlanen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Bittor Oroz Izaguirre, Nekazaritza eta Garapenerako sailburuordea. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Imanol Zuluaga Zamalloa jauna, Kabineteko zuzendaria, Osasun Sailaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Leixuri Arrizabalaga Arruza andrea, legebiltzarkidea eta Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko presidentea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Oihana Etxebarrieta Legrand andrea, legebiltzarkidea eta Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari gisa. Presentzialki bertaratu da.
- Bokala: Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Presentzialki bertaratu da.
- Bokala: Olga García Martínez andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Alberto Cereijo Fernández jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria. Presentzialki bertaratu da.

Era berean, guk gonbidatuta eta gai-zerrendan bildutako gaiak aurkezteko laguntza teknikoa emateko xedez, eLankidetzako Koordinazio Teknikoko arduradun Alazne Camiña andrea, eLankidetzako Administrazio eta Zerbitzuetako arduradun Izaskun

Astondoa andrea eta eLankidetzako lankidetzateknikari Pilar Díez Arregui andrea bertaratu dira.

Honako hauek ezin etorria adierazi dute:

- Bokala: Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (hemendik aurrera, eLankidetzateknika) eta haren Kontseilu Errektoreko presidentea.

## Sarrera

Jose Antonio Rodriguez Ranz jaunak hitza hartu du bertaratuei ongietorria egiteko, eta bilkurari hasiera eman dio honako gai-zerrenda honi jarraikiz:

1. *2022ko uztailaren 15ean egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.*
2. *2023ko aurrekontu-aurreproiektuko proposamena onartzea*
3. *2022ko proiektuetarako laguntzak emateko proposamena onartzea.*
4. *2022ko zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea*
5. *Lanpostuen zerrenda-aldaketa onartzea*
6. *Ekintza humanitarioko deialdirako aurrekontu-igoera onartzea*
7. *Ekintza humanitarioko proiektuei laguntzak emateari buruzko informazioa*
8. *Galde-eskeak*

Presidenteak eman dio hasiera bilkurari, eta adierazi du gaur aztertu beharreko gai-zerrendari buruzko dokumentazio guztia aldeztu aurretik helarazi dela.

### 1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2022ko uztailaren 15eko bilkuraren akta onartu da, bertaratu diren guztien aldeko botoekin.

### 2. 2023ko aurrekontu-aurreproiektuko proposamena onartzea

Izaskun Astondoa andreak hitza hartu du, eta, adierazi duenez, aurrekontua egin da zero igoerako jarraibideen arabera, eLankidetzateknika taldearentzako soldata-igoerako % 3,5 gehituta. 2022-2023 aldiran funtzionamendu-gastuen partidan nabari den aldea bi arrazoiren ondorio da: (a) Proiektu-tresnaren ebaluazioaren lizitazioa (PRO), 200.000 euroko kostuarekin gutxi gorabehera (b) 2022ko ekitaldian baino jarraipen-bidaia gehiago egitea aurreikusitako da, eta horregatik funts gehiago jarri dira partida horretarako.

Paulek erantsi duenez, Sailaren funts-ekarpena ez ezik, URarena ere badugu.

Azalpenaren ostean Josu Urrutia jaunak hitza hartu du, honako hausnarketa hau egiteko: eLankidetzak Lege-aurreproiektu bat aurkeztu zuen, eta haren 19.3 artikulua ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak urtero bere guztizko gastu finkatuaren % 0,7 bideratuko du lankidetzaren eta elkartasun-politikara, eta lankidetzaren aurrekontuaren urteko hazkundea, gutxienez, aurrekontu orokorraren urteko hazkundearen proportzioan emendatuko da. Horren arabera, bilkuran aurkeztutako aurrekontua iragarritakoarekin bat ez datorrela adierazi du.

Jose Antonio Rodriguez Sanz jaunak erantzun dio beste aurrekontu batzuk aurkeztea gustatuko litzaiekeela, baina aplikazio orokorreko irizpide bat dela, ez eLankidetzaren irizpide bat. Josu Urrutiak galdetu du hori sail guztietara zabalduko ote den, eta, kanpotik ikusita, bitxia iruditzen zaiola. Jose Antonio Rodriguezek erantzun dio zero hazkunde orokorra indarrean dagoela sinetsi nahi duela, egungo krisi-egoera dela eta hartzen ari diren aparteko neurriak alde batera utzita. Alberto Cereijo jaunak hitza hartu du, eta adierazi du, 2023rako 51,5 milioi euroko aurrekontua aurreikusita zegoen arren, orain, aldiz, 50.725,000 euro dela. Eta horrela lankidetzari garrantzia kentzen ari zaiola erantsi du.

Bertaratuek proposamena bozkatu dute, eta gehienek onartu dute, aldeko 7 botorekin eta kontrako 4 botorekin.

### **3. 2022ko proiektuetarako laguntzak emateko proposamena onartzea**

Jose Antonio Rodriguezek azaldu duenez, proiektuetarako laguntzen deialdia eLankidetzaren deialdi garrantzitsua da, nola funtsen bolumenari (32 milioi euro) hala sustatutako ekintzen eta eragileen kopuruari dagokionez. Deialdi horren ebazpena bilkura honetan onartzea proposatzen dela ere esan du. Proposamen horren helburua da 75 proiekturi laguntzea beren modalitate guztietan (garapenerako lankidetzaren, prestakuntza eta laguntza teknologikoa eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza), eta, ildo horretan, euskal lankidetzaren ildo estrategikoak indartzen ari dira.

Proiektu guztien zerrendarekin (emandakoak, funtsak agortu izanaren ondorioz ukatuak, baztertuak eta atzera botatakoak) emandako informazioa oinarritzat hartuta, Alazne Camiñak deialdiko laguntzak emateko proposamenaren elementurik garrantzitsuenak

aurkeztu ditu, eta 2022ko eta 2021ko ebazpenen arteko alde interesgarrienak nabarmendu.

Behin azalpenak eman ondoren, Kontseilu Errektoreko kideek ez dute galderarik egin, eta beraz laguntzak emateko proposamena onartu behar dute. Hala, laguntzak emateko proposamena onartu da aldeko 9 botorekin eta 2 abstentziorekin (Josu Urrutia eta Patricia Bárcena).

#### **4. 2022ko zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea**

Jose Antonio Rodriguezek proposatu du zuzeneko laguntzako lau ekimen berri onartzea: lehena Kolonbian garatuko da Vivamos Humanos Korporazioarekin, Kolonbian gatazka humanizatzeko eta bake-prozesuarekin aurrera jarraitzeko helburuarekin; bigarrena, Guatemalan, Hondurasen eta El Salvadorren garatzekoa da, SWISSPEACE Suitzako Bakerako Fundazioarekin elkarlanean, gatazken trantsizio eta eraldaketarako justizia-prozesuetan laguntzeko helburuarekin; hirugarrena, El Salvadorren, Emakumeen Genero Berdintasunerako eta Ahaldunderako Nazio Batuen erakundearekin (NBE EMAKUMEAK), "Emakumeak, parte hartze politikoa eta boterea. Udal-eremuan funtsezko berdintasuna lortzeko ibilbide bat eraikiz" proiektua finantzatzeko; eta laugarrena Colectivo Ovejas Negras elkarte zibilarekin, "Venir al Sur" IV. Topaketa Lesbitransinter Feminista finantzatzeko.

Paul Ortegak zehaztasun handiagoz azaldu ditu proposamen horiek guztiak, eta besterik gabe, aho batez onartu dira.

#### **5. Lanpostuen zerrenda-aldaketa onartzea**

Izaskun Astondoa andreak hitza hartu du, eLankidetzaren lanpostuen zerrenda-aldaketa planteatzeko. Goi-mailako kargudunen Idazkaritzarako lanpostua litzateke, eta izendapen askekoa litzateke hemendik aurrera, antzeko ezaugarriak dituzten beste lanpostu batzuekin berdinduta. Aldaketa horrek ez du aurrekontuan eragiten. Inork ez du horren harira ezer planteatu, eta aho batez onartu da.

#### **6. Ekintza humanitarioko deialdirako aurrekontu-igoera onartzea**

Jose Antonio Rodriguezek 2022ko Funts Banagarriak eta 2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzeko proposamena aurkeztu du onartua izan dadin. Proposamen

horretan, Agentziaren dirulaguntzetara eta deialdietara bideratutako zenbateko globalak eta ehunekoak zehaztu dira, baita horiei jarraitzeko adierazleak ere.

Paul Ortegak azaldu duenez, aurten hasiera batean aurreikusitako bi laguntza-deialdiak egiteko modurik izan ez denez, eLankidetzaren aurrekontua behar bezala betearazten dela bermatzeko, ekintza humanitarioko proiektuen ildo ireki eta iraunkorraren hasierako zuzkidura igo nahi da, deialdi horietan deitu ez diren funtsen kopuru berean.

Ondoren, Alazne Camiñak proposatutako aldaketaren termino orokorrak azaldu ditu:

- Programen deialdia (PGM) bertan behera geratu da, hura argitaratu baino lehen, garapenerako lankidetzeta-programetarako laguntzak arautuko dituen arau-tresna berria argitaratu behar delako. Alabaina, dirulaguntza-deialdi hau izapidetu eta onartzeko prozesua egin den garaian Euskadiko Nazioarteko Garapen eta Elkartasunerako Lankidetzari buruzko Legearen Aurreproiektua egin eta izapidetzeko prozesua ere gauzatu da, eta horregatik haren argitalpena atzeratu egin da, dirulaguntza-araua berriz ere aztertu behar delako izapidetzen ari den Lege horren testuinguruan;
- Profesionalen espezializazio-beken deialdia bertan behera geratu da (BEK), hura izapidetzeko modurik ez delako izan, Izan ere, deialdi horren dokumentazioa berriz ere aztertu behar izan da neurri handi batean, kontrol finantzarioko Bulegoak egindako 2020ko lankidetzeta-proiektuen auditoria-txostena aintzat hartzeko, eLankidetzaren arau-tresna guztietan zuzeneko eragina duela aintzat hartuta, baita Kontrol Bulegoaren nahitaezko gainerako txosten guztiak aintzat hartzeko ere;
- Ekintza humanitarioko proiektuen modalitaterako 176.000 euro gehiago jarri dira (PRE, linea irekia eta iraunkorra), laguntza-ildo hori ondoz ondoko konkurrentzia prozedura batek arautzen duelako, eta, prozedura horren arabera, 2022ko ekitaldi osorako eskaera-epe bat aurreikusten delako, laguntzak aurkezteko beste epe bat ireki beharrik gabe.

Horrekin loturik, urriaren 17an, ildo horri dagozkion emakida-ebazpenen arabera, funtsen soberakina dago oraindik ere, eta guztira 6 eskaera barematzeke daude; hortaz, hori ez da itxi funtsak agortu direlako. Bestetik, SARS-CoV-2 pandemia herrialde eta kontinenteen arabera modu desberdinean kudeatu izanak eta Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazkak eragindako egoerak, ekintza humanitarioko proiektuen (PRE) lehentasunezko izaera indartzen du, krisi-

egoeren aurrean erantzunik onena eman dezakeen tresna delako, krisi horien eragina, laguntzaren jomugan dauden herrialde pobretuetan are latzagoa dela kontuan hartuta.

Aldaketa horiek bozkatu dira, eta Kontseilu Errektoreko kideek aho batez onartu dituzte.

## **7. Ekintza humanitarioko proiektuei laguntzak emateari buruzko informazioa**

Jose Antonio Rodriguez Sanzek Pilar Diez andreari eman dio hitza, eta hark azalpen zehatz bat eman du ekintza humanitarioko proiektuetarako aurkeztutako eta onartutako lehen 2 ekimenen inguruan. Azaldu duenez, dagoeneko 20 proiektu onartu dira, eta, oro har, ekimen horiek krisi ahaztuei laguntzeko erantzunak dira (SEAD, KED, Hego Sudan, Txad), indarkeriaren gorakadak etengabeak direlako testuinguru horietan.

Horrela, ildo horretarako funts guztietatik 3.997.311,87€ esleitu dira, hau da, funtsen % 99,93, eta 2.668,13 euroko soberakina geratu da. Horrez gain jakitera eman du, laguntza-ildo horren zuzkidurari dagokionez Kontseilu Errektore honen aurreko puntuan onartutako igoerak bide emango duela deialdi ireki honetara aurkeztutako hurrengo eskaerari 178.668,13 euro esleitzeko, laguntza-ildo hori arautzen duen ondoz ondoko konkurrentzia-printzipioari jarraikiz, betiere 50 puntu edo gehiago lortzen baditu.

## **8. Galde-eskeak**

Paul Ortegak jakinarazi du, 2021eko memoria onartzean EAEren betearazpen-datua falta zela. Eta berriz ere bidaliko dela, datua eguneratuta.

Jakinarazi du, halaber, urtea amaitu baino lehen bi bilera gehiago egingo direla, bata zuzeneko dirulaguntzak onartzeko, eta bestea ekintza humanitarioko estrategien deialdien, genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketako prozesuen eta ekintza humanitarioko proiektuen berri emateko.

Ez denez beste gairik proposatu, bilkura amaitutzat eman da 13:50ean. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehen paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO

OE Jose Antonio Rodríguez Ranz, Giza  
Eskubide, Memoria eta Lankidetzako  
sailburuordea

Paul Ortega Etcheverry  
Kontseilu Errektoreko idazkaria  
GLEAko zuzendaria